

### MUGIKORRA NEURRIAN? Testa

Mugikorra neurrian erabiltzen al duzu? Eragiten al du zure bizimoduan?

a. Oso gutxitan    b. Noizean behin    c. Gehienetan    d. Beti

		a	b	c	d
1	Estaldurarik edo wifirik gabe gelditu banaiz, berreskuratu ote dudan egiaztatu edo beste wifi-sare baten bila ibili behar dut etengabe.				
2	Aplikaziorik erabili ezin badut, haserretu egiten naiz.				
3	Bateriarik gabe gelditzeak beldurra ematen dit.				
4	Hilabeteko datuen mugara iristea hondamendia da niretzat.				
5	Mugikorra beharrezkoa dut etxekoekin eta lagunekin etengabe harremanetan egoteko.				
6	Mugikorrik gabe urduri eta beldurrak egoten naiz, ezin baitut ez deirik jaso, ezta mezurik kontsultatu ere.				
7	Leku guztietara mugikorrarekin joaten naiz, baita komunera ere.				
8	Mugikorra erabiltzen dudanean, denboraren nozioa galtzen dut.				
9	Oheratu baino lehen eta esnatu orduko mugikorra kontsultatzen dut.				
10	Nahiago dut mugikorrarekin ibili lagunekin edo ezagunekin hitz egin baino.				